

Zutabegile hasiberriaren zalantzak

Zer idatzi lehenengo zutabean? Leiho zabal honetan, eta oro har, zutabegintzan debuta egin behar nuela eta, ezer baino lehen, jendelegeak agintzen duen gisara, nire ttakunkide Ana eta Jose Luis agurtu eta elkarrekin egin beharreko bidaiari xendra ona opa:

Kaixo Ana eta Jose Luis, zer gizalarri? Edo. Agur ttakunkide maiteok, Ana eta Jose Luis, Jose Luis eta Ana. Ohore bat izanen da enetzat. Irakurleei ere, jakina, diosal egin. Agur, irakurle preziatu hori. Edo. Zu gabe ez ginateke ezer. Edo. Ez nazazu utzi, ulerterraza izango naizela zin egiten dut. Gogoan hartu, halaber, aurretik hemendik igarotako kideak. Inazio Mujika Iraola, Itxaro Borda, Jon Alonso, Anjel Erro, Jose Inazio Basterretxea, Ur Apalategi, Juanjo Olasagarre, Katixa Agirre, Eider Rodriguez eta Ixiar Rozas. Honek ez du hain zaila ematen, bidean inor ahantzia utzi ez badut, bederen.

Eta (h)errenkari heldu behar gero. Ondo ulertu badut, udako oporrak, abuztua, jaietako festak eta abar. Anak herriko jaietako “lasaitasuna” –edo “normaltasuna”, modako terminoa erabiltzearren– ekarri du hizpidera ironikoki. Euskal mccarthysmoaren buruzagitzarako hautagai nagusia bihurtu zaigu Iñaki Azkuna uda honetan. Kaskagorri eta Txoribarrote konpartsak izan dira, hala, sorgin-ehiza honen azkeneko biktimak. Tira, lehenengo egunetik bazterrak harrotzen ibiltzea eta ezinikusiak eragitea ez da, akaso, zuhurrena. Jo dezagun beste bide batetik. Euskal prentsako diru-laguntzak jaitsi egin direla –kasu batzuetan %69a– jakin dugu uda hastapenetan. Barrenak irauli zaizkit kotxez AP-1 delakoa hartu dudanean Maltzagatik Arrasatera. Autopista fantasma bat, inondik ere, tunel amaigabeek girotua. Eh txo, ez al gara geratu horrelako kontutan muturra

MARC CAMPA



Beñat Sarasola



Urkiza



Padroin

ez sartzeko? Gainera, korporatibista eta koipe-emailetzat jo zaitzakete, Xabier Letonak egin baitu diru laguntzen inguruko salaketa publiko ia bakarra. Anak terrazen kontua aipatu duelarik, Donostian, Alde Zaharrean terraza kopurua handitzeko proposamena abian dela-eta sortu den polemika

kaz idatz nezake. Haatik, hor ere galtzeko irabazteko baino gehiago, seguruenik.

T. S. Eliot aipatu du Jose Luisek, eta horratx nire salbazioa. Elioten poema famatuenetakoa den *The Waste Land*en hasiera aipatu du Jose Luisek, “*April is the cruellest month*”, eta ondo legoke gogora ekartzea poema horren zati bat Joseba Sarrionandiak itzuli zuela *Ob Euzkadi!* aldizkari-ko hamaikagarren alerako, 1981eko abuztuan (noiz eta abuztuan!). “Apirila da hilarik krudena, lur hileko/lilak hazten, oroimena eta desira/nahasten, sustrai uherrak/udaberriko euriez eragiten”. Jose Luisek abuztua dela hilik tontoen esaten zuen, “*August is the dumbest month*”-edo. Oroimena ahazten, desira gailentzen, sustrai uherrak igandekarien oinkadak pairatzen. Baina konturatzera irailen gara, eta irailen zer? Nire amona zenak esaten zuen bezala, irailen futbola eta gaztainak. Momentu egokia Reala ekartzeko (h)errenkara. Berriz ere lehenengo mailan, etcétera, negu bezperetan, etcétera, etcétera.

Azkenik, dena ondo lotuta edukitzea lortu dudala zirudien; jendetasunez beteriko testua, esaldi mikatz eta erretxinik gabea, Reala ere nola edo hala testura ekarria. Baina hainbeste izerdi kostatako zutabea ARGIAra bidaltzeko puntuan nengoela, zer eta ETArekin agiria. Arraioa. Hauek ere nire antzera ibili direla ematen du. Su-etena. Edo. Sueten iraunkorra. Edo. Bertan behera uztea eraso ekintza armatuak. Edo, sinpleki. Sefini la patat, amaitu da, bagoaz. ■



Euskal mccarthysmoaren buruzagitzarako

hautagai nagusia bihurtu zaigu

Iñaki Azkuna uda honetan. Kaskagorri eta

Txoribarrote konpartsak izan dira, hala,

sorgin-ehiza honen azkeneko biktimak

